



FEDERACION VIZCAINA DE MONTAÑA
BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAZIOA

www.bmf-fvm.org

<https://www.facebook.com/pages/Bmf-Fvm/597553177057267>

BGME-EVAM-ean TEKNIKARI GISA SARTZEKO AUKERAKETA-IRIZPIDEAK

DEIALDIAREN ARRAZOA: Monitoreen lan-poltsa bat eratu, Federazioari eskaera igorriez gero, espezialitate desberdinetan heziketa eta ikastaroen buruketari begira, batez ere Goi-mendi eta Eskaladan.

Zerbitzu honen prestazioa lehentasunez larunbatean eta igandean egingo da, goizez eta arratsaldez ikastaroetan ezarritakoa jarraituz, etab.

Izendapena, aldi baterako izango da soilik, BMF-ak, ikastaroak bukatu orduko, etab. baliogabetua edo luzatutakoa geratuz.

IZANGAIEN BALDINTZAK: Hautaprobetan parte hartzeko beharrezkoa izango da

1. Adinduna izatea.
2. Federatua egotea.
3. Aukeran dauden espezialitate desberdinetan gradu ertaineko, honen antzekoa edo goragoko kirol-titulua izatea.
4. Sorospen-Ziurtagiria
5. Euskara.
6. B motako gidabaimena izatea.

Baldintzak eskaera aurkezteko unean bete behar dira.

ESKAERA-AURKEZPENA ETA IZANGAIEN ONARPENA:

Hautapen-prozesu honetan parte hartzeko eskaerak **Maiatzaren 3tik- 13ra** (biak barne) aurkeztu ahal izango dira: BMF-eko bulegoetan pertsonalki (Martín Barúa Picaza, 27 - 4. plta. - irekitze-ordutegian) edo info@bmf-fvm.org helbide elektronikoa erabiliz. Epeaz kanpo aurkeztutako eskaerak gutxietsiak izango dira.

Eskaerarekin batera lagunduko hurrengo dokumentazioa erantsi behar izango da:

- NAN-aren kopia.
- Postua eskuratzeko eskatzen den Tituluaren kopia.
- Federazio-Lizentziaren eguneratutako kopia.
- Indarreko hautapen-prozesuaren balioespenerako argudiatzen diren merituen erlazio eta egiaztapen dokumentala kopia bitartez.

Izangaiak, prozesu honetan parte-hartzean, izaera pertsonaleko datu-babes kontuetan indarreko araudiaren efektuetara aruzko argitalpenetan identifikatzeko baimena automatikoki ekarriko du.



FEDERACION VIZCAINA DE MONTAÑA
BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAZIOA

www.bmf-fvm.org

<https://www.facebook.com/pages/Bmf-Fvm/597553177057267>

Hautapen-prozesu oro zuzentzen duen publikotasun-printzipioaren ondorio bezala, ez da eskaerik onartuko izangaiak bere datuen lagapena ukatzen badu, halaber, sartzeko zuzenketarako, indargabetzerako eta oposiziorako eskubideak balio izatearen kasurako, deialdiaren organora zuzendu daitezela informatzen da.

MERITU-BALIOESPENA:

A. Titulu akademikoak:

TD 2.maila goi-mendiko espezialitatea. **2**puntu

TD 2.maila eskalada espezialitatea. **2**puntu

TD 2.maila sakan espezialitatea. **2**puntu

TD 3.maila goi-mendiko espezialitatea. **3**puntu

TD 3.maila eskalada espezialitatea. **3**puntu

Goi-Titulua edo graduatua gehi masterduna Zientzia eta Jarduera Fisikoetan eta Kiroletan. puntu **1**.

CAP edo gaitze didaktiko eta pedagogikoko masterra. puntu **1**.

B. Elkarrizketa Pertsonala: gehienez **3 puntuko puntuazioa izango du.**

PROZESUAREN GARAPENA:

Parte-hartzeko eskaeren aurkezpen epea bukatuta, hauek BMF-ko Zuzendaritza-Batzordera igorriko dira, batzordeak, deialdian eskatutako baldintzak betetzen direla frogatu eta parte-hartzaileak argudiatutako merituak balioets ditzan ondorengo bi fasetan:

A. Lehen fasea gainditzeko, curriculum-aren balioespena, **2** puntu edo gehiagoko puntuazioa eskatuko da. Zuzendaritza-Batzordeak argudiatutako merituen balioespena igorriko du eta Federazioaren webean argitaratuko da

B. Elkarrizketa pertsonala, B atala.

Ondoren, Zuzendaritza-Batzordeak, lortutako lehentasun-ordena jarraituz, eskatutako minimoa lortu duten pertsonen erlazioa argitaratuko du.

Parte-hartzaileek, aipaturiko akordioaren kontra kexa aurkeztu ahal izango du, **hiru** egunen barruan, beti ere aipatutako argitalpenaren hurrengo egunetik aurrera. Zuzendaritza-Batzordea izango da kexa hau ebatziko duena.